# Sagardoa botatzen sarituak

Sagardoa zerbitzatzen gogotik aritu zirenen artean dago, ondoko argazkiko hirukotea. Denek eman zuten onena baina hiru baino ezin zituen hautatu, botatzaileen txapelketarako 39. Sagardo Eguneko dastatzean zehar azterlanean aritu zen epaimahaiak.



Sagardo botatzaileen txapelketako hiru finalistak.

## Lehia estua

Ez zuen lan erraza izan, baina goizeko jaialdia amaitu aurretik bozgorailuetatik iragarri eta gerora oholtza gainera igo zituzten hiru finalistak. Bertan azken erakustaldia egin ostean saritu zituzten hurrenkera honetan, bi urteren ostean itzuli den 39. Sagardo Eguneko botatzaile onenak. Hemen duzue behin betiko sailkapena.

**Sagardo botatzaileen txapelketako sarituak**

1-Unai Aizpurua.

2-Beñat Arruti.

3-Leire Furundarena.